

Herritarrek

2017ko ekaina

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2015-2019

8. alea



www.berastegi.eus

HIRIGINTZA

1. Plaza berritzeko proiektua: Espero bezala eta esperotako denboran doaz plaza berritzeko lanak. Apirilaren 25ean sinatu genuen kontratua eta maiatzaren 8az geroztik martxan dira lanak. Sasoi Eraikuntzak SL enpresak du lanen ardura. Proiektu osoak 486.378,96 euroko aurrekontua du, plaza, Oporlekuko pasabidea eta autobus geltokia barne hartuta. Finantziazioa Eusko Jaurlaritzaren 2016ko Erein diru-laguntzaren bidez (149.800 euro) eta Udalaren diru funtsen bidez (336.578,96 euro) egingo da. 2017ko Erein diru-laguntzen deialdira ere aurkeztuko dugu proiektua, lehengo urtean emandako laguntza lehen faseari begira eman baitzen eta guk proiektua osorik gauzatu dugunez, badugu aukerarik berriz ere aurkezteko.



Plazako obrak aldaketak ekarri ditu autobus zerbitzuan. Lineako autobusek Etxeluze etxearen parean, Dendaberri atarian egiten dituzte geldialdiak. Eskoletako autobusek, berriz, bi geldialdi egiten dituzte: bata, soziedade atarian; eta, bestea, eliz atarian.

Bestalde, Oporlekura bidean dagoen pareta bota eta metro bat atzeratuko da, urak hartu eta espaloia egiteko. Pareta jaitsi beharrean, barandilla bat jarriko da eta bertan dauden 6 errefus ontzietako 2 Etxeaurre atarira eramango dira.



2. Uretako bihurgunea zabaltzeko lanak: Egin beharreko lanen inguruan ados jarri gara bi aldeak. Zesio-hitzarmena sinatu eta aurki hasiko gara lanean. Lur saila uztearen truke, udal gobernuak bihurgunea zabaltu eta bi kotxerentzako aparkalekua egokituko du. 3.500 euroko aurrekontua du obrak.

3. Gaxine atarian aparkaleku berria egiteko lanak: Honetan zeszio-hitzarmena sinatua du dagoeneko udal gobernuak lur jabearekin. Gaxine atarian Ozpindegitik beherako bidea zabaldu eta 10 bat kotxerentzako aparkalekua egingo dugu pareko belardian. Lanek 30.000 euroko aurrekontua dute.



4. Kale izendegi berria: Seinaleak jartzeko erabili diren fatxada eta eraikinen jabeei eskatu zien udal gobernuak hartarako baimena. Gehienak aldeko agertu dira. Seinale batzuk jarrita daude, laster osatuko ditugu falta direnak.

5. Abiadura murrizteko eta irisgarritasuna bermatzeko neurriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideetako arduradunek hala egitea eskatu zigutenez, herriko arkitektoak proiektu bat diseinatu eta prestatu du, udal gobernuak aginduta, errepide nagusian edo Leitza-Tolosa etorbidean, Mallorkina eta Eguzkitza artean, oinezkoen irisgarritasuna bermatu eta ibilgailuen abiadura murrizteko asmoz.

Hauxe jasotzen du proiektuak: batetik, Ategiko urbanizazio berritik gora datorren espaloiarri Modestoenea etxera arte segida ematea; bestetik, Bista Eder baino pixa bat plaza alderago, edukiontzia dauden lekuan hasi eta Eguzkitzara arte espaloia egitea (Ategiko eremu berritik gora, eskailerak dauden lekuan bidea egin eta bermatuko luke udal gobernuak oinezkoentzako pasabidea); eta, bukatzeko, Bista Eder eta Yereginea artean, Yeregineko lur sail zati bat erabiliz errepidea zabaldu eta bi norabideak bereizteko eta ibilgailuen abiadura murrizteko balioko duen 'isleta' bat egitea tartean.

Ekainaren 20an bildu ziren alkatea eta herriko arkitektoa errepideetako arduradunekin proiektua aurkezteko. 232.000 euroko aurrekontua du eta Aldundiko ordezkariak printzipioz begi onez hartu dute. Urte honen amaieran ez bada, datorrenean proiektua egingarria izan litekeela adierazi digute. Lan hauek Aldundiak agindu eta finantziatuko lituzke.



6. Oinezkoentzako bide berria Elduainaldera: Lizarrako atarian hasi eta Danbolin, Jakasenea, Amioena eta Ezpeleta azpialdetik Lore Toki eta Sedrora bitarte oinezkoentzako bidea egiteko aukerak aztertzen ari da udal gobernuak. Bide berriak oinezkoak Elduainaldera modu seguruan iristea ahalbidetuko luke.



Trazatua dugun ibilbidea herri bidea da gehien-gehienean; partikularra edo jabetza pribatukoa den lur eremuaren jabeekin harremanetan gaude, proiektua zertan den azaldu eta beren prestutasuna ezagutzeko.

7. Parkea berritzeko diru-laguntza onartua: Eusko Jaurlaritzak ikastetxe publikoetan eraberritze lanak egin ahal izateko deitutako laguntzetara bi proiektu aurkeztu zituen udal gobernua eta biak onartuak izan dira: parkea eraberritzeko proiektua, batetik; eta, bestetik, eskolako alarma sistema berritzekoa. Lehenak 22.000 euroko aurrekontua du eta bigarrenak 900 eurokoa. Onartua izan zaigun laguntzak %60an lagunduko ditu bi proiektuak eta laguntza jaso ahal izateko lanek abendurako bukatuta beharko dute.



Urteroko udal foroaren harira, maiatzean bildu zen alkatea eskolako haur eta gaztetxoekin eta jaso zituen parke berriari begirako hainbat proposamen.

8. Frontoia berritzeko diru-laguntza ere onartua: Gipuzkoako Foru Aldundiak 11 milioi euroko partida prestatu du lau urtetan zehar (2017 eta 2020 bitartean) banatzeko. Partida honen bidez, lurraldeko kirol azpiegiturak berritzeko landutako proiektuak lagundu nahi ditu. Zaharberritze lanetara bideratutako proiektuek, erabilera publikoa izango duten kirol azpiegiturek eta irisgarritasuna bermatzeko asmoz egindakoek puntuazio altuagoa jaso dute.

Udal gobernua herriko arkitektoak diseinatutako frontoia berritzeko proiektua aurkeztu zuen deialdira 240.000 euroko aurrekontuarekin eta onartua izan zaigu. %50a agindu digute, hau da, 120.000 euro. Beraz, 2017an ez segur aski, baina 2018an frontoia berritzen hasteko moduan izango gara. Herritarrekin batera, aukeratuko dugu, nolako frontoia eraikiko den.



9. Ategiko etxebizitza eremua: Laster bukatuko dituzte egin beharreko eraikitze eta urbanizatzeko lanak. 9 etxebizitza eskaini ziren eta 9ak salduta daude. 2018an berriz ere galdeketa egingo dugu herrian, herritarren etxebizitza-beharrak zertan diren ezagutzeko.

UDAL FUNTZIONAMENDUA

10. Herri langilearen kontratazioa: Hilabete eta erdirako hirugarren herri langile bat kontratatu du udal gobernua lanaldi osoz aritzeko. Kale garbiketa, mantenimendu eta festetako lanetarako kontratatu da. Izen emateko epea uztailaren 7ra arte egongo da zabalik. 4 izan dira aurkeztu diren hautagaiak eta udal gobernua eskatutako baldintzak (18 urte beteta izatea, langabezian egotea, herrian erroldatuta egotea, euskara jakitea, gida baimena izatea eta sasi-garbitzeko makina erabiltzen jakitea) betetzen zituzten hautagaien artean zozketa egin eta Andoni Azpirozek lortu du lanpostua. Uztailaren 17tik lanean da.

Bestalde, egun horretan bertan bigarren herri langileari lanaldi erdia osora luzatu zaio datorren hilabete eta erdirako.

11. Udako ordutegia udaletxean: Udal liburutegia ekainaren 26tik uztailaren 28ra goizez bakarrik izango da irekita, 10:00etatik 13:00era, eta abuztuan itxita egongo da. Udal bulegoak, berriz, herriko festek irauten duten egunetan bakarrik itxiko dira.



INGURUMENA eta ENERGIA

12. Gas naturala Ategin: Geuk enpresakoek sartu dute dagoeneko gas zerbitzua Ategin eta kontadoreak bereiztuta jarri ere bai. 4.900 euroko kostua izan dute lanek.

13. Gas naturala Erretoretxean: Gas propanoa kendu eta naturala jartzeko ados jarri dira bizilagunak. Udalak ere badu bere parte, frontoiko aldagelak tarteko. Hemendik aurrera, nork bere kontsumoarengatik ordainduko du eta ez jabetzan duen metro kopuruaren edo jabetza proportzioaren arabera.

14. Bide garbiketa lanak: Herri guneko eta herri bueltako belarrak garbitzeko eta belar txarren kontrako tratamendua emateko lehen saioa maiatzan egin dugu. Iñigo Atxukaroren enpresak izan du lan horien ardura. Beste garbiketa eta tratamendu saio bana egingo ditu enpresak urtea bukatu baino lehen.



15. Kale argiak osatzeko lanak: Aurreko herri batzarrean aipatu genizkizuen lanak (Elizalden, Urdinarrainen, Izotzalden eta Eguzkialden egin beharrekoak) eginda daude dagoeneko. Osatu gabe geratu zaizkigun puntuetan ere jarriko ditugu kale argi berriak (Muñope parean, Pateo parean...).

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA eta BASOGINTZA

16. Baserri bideak konpontzeko diru-laguntza: Aintzergako auzokide batzuegandik jasotako eskaera Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako deialdi batera aurkeztu genuen eta onartua izan zaigu. %60ko laguntza emango digute. Estebaneneko bordatik masazko bidea hasten den eremura arte hormigoituko da bidea.

17. Ipuliñoko mendia larre komunal bihurtzeko proiektua: Herriko ingurumen teknikariak landua du dagoeneko Ipuliñoko larre komunalen proiektua jasotzen duen txostena. Udalak komunal bihurtzea aurreikusi duen eremuan, herriarenak diren lur sailez aparte, 23 lur jabe pribatu daude zerrendatuta eta sail bakoitza zer neurritakoa den, zer egoeratan dagoen, zer landaretza mota duen, zenbat buru, nolakoak eta nola sar litezkeen ere zehaztua dago.

Ekainaren 15ean bildu ziren udal ordezkariak Jabier Jauregi Gipuzkoako Foru Aldundiaren pean dagoen Etorlur erakundeko larre sailen arduradunarekin, proiektua aurkeztu eta azaltzeko. Ondo iritzi diote eta larre komunalak ixten eta prestatzen pixkana hasteko gomendioa egin digute: udal jabetzakoa edo herriarena den eremuarekin hastea aholkatu digute, Gorosmendiko



galekuarekin, hain zuzen. Itxi, garbitu eta ura ahalbidetu, horiek lirerateke, besteak beste, egin beharreko lanak. Irailaren 14an bilduko da udal gobernua terreno jabeekin; herriko ganaduzaleekin, berriz, irailaren 21ean. Guztiei aurkeztu nahi diegu proiektua, zer iritzi duten jakin eta parte izan daitezten eta babestu dezaten ahalegindu. Bilera horietan beste herri batzuetako esperientziak ezagutzeko aukera izango dugu eta larre komunalek nola funtziona dezaketen eta alde bakoitzak zein betebeharrak eta eskubide dituen azalduko dugu.

18. Hondatuta geratu diren herri bideen txukunketa: Egurra ateratzeko lanen ondorioz, hondatuta geratu diren eta egurzaleak konpondu gabe utzi dituen bideak txukundu egingo ditugu. Horretarako, egurzaleak lanekin hasi aurretik jarritako fidantza erabiliko dugu eta plazako lanak direla eta soberan geratu den materiala. Material horretaz gain, beharko duguna kanpotik ekarriko dugu. Fidantza erabiltzen hasteko tramiteetan gaude eta lanei ekiteko aurrekontuak eskatuta dauzkagu.



19. Herri bideen inbentarioa: Herriko arkitektoa eta aparejadorea lantzen ari diren inbentarioaren 3. eta 4. eremuak amaituta eta ikusgai dituzue udal bulegoetan. Hirugarren eremuak Berastegiko zelaia eta Izotzalde auzoa barneratzen ditu eta laugarrenak Aintzerga auzoa. Eremu horietako lur jabeen gutunak bidaliko zaizkie jakinararen gainean jartzeko.

GIZARTE ZERBITZUAK

20. Haurreskolako matrikulazioa: Datorren irailari begira maiatzeko aurrematrikulazioan matrikularik ez zegoenez, udal gobernuak lanketa berezia egin du erabiltzaile izan litezkeenak matrikulatzera animatzeko. Irailean Haurreskolan hasteko adinean dauden haurren familiei, matrikula egitea erabakiz gero, hileroko kuota, laburra nahiz luzea, %50ean laguntzea erabaki dugu. Kanpaina honen ondotik, hiru matrikulazio egon dira, Haurreskola zabalik mantentzeko behar ziren adina; beraz, irailean Haurreskola irekita mantentzea bermatu dugu.



21. Berdinbidean programaren barruko ekintzak: Hauexek datozen sei hilabeteetan zehar egingo ditugunak: batetik, jaietan gertatzen diren eraso sexistaren harira, Emakundek antolatzen duen eta Berdinsarea-Eudelen, hiru lurraldeetako Aldundien, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren eta EHU eta EITBren laguntza duen *Beldur Barik* programaren barruan, zenbait material iritsi zaizkigu (kartelak, pegatinak etab.) eta guk Salontzoetan erabiliko ditugu; bestetik, emakumeen jabetzearen alorrean, udazkenean barreterapia saio bat antolatuko dugu emakumeentzat; bestalde, eskolarekin lanketa ere egingo da haur, gaztetxo eta nerabeen artean hizkuntza ez-sexistaren erabilera bultzatzeko; eta, bukatzeko, nerabezaroan dauden seme-alabak dituzten gurasoei begira "Arazoak lasaitasunez eta konfiantzaz" hitzaldi-tailerra antolatzeko asmotan gabiltza.



MOTZEAN

22. Etxebizitza bat libre Elizalden: Elizalde 5 blokean jabe batek (1D) uko egin dio etxe jabe izateari. Beraz, bi hilabeteko epea zabaldu du udal gobernuak interesa izan dezaketen herritarrak udal gobernuarekin harremanetan jar daitezen. Interesaturik ez balego, epe muga hori pasata, etxe jabearen esku geratuko litzateke etxebizitzaren salmenta.

23. Kanposantuko lanak: Beste 18 nitxo hustu eta erabilgarri jarriko dira. Lan horiek Hargoi enpresak egingo ditu. Errautsentzako nitxo txikiak ere jarriko ditugu hezurtokiaren ondoan, kanposantu berrian fondoan, aterpe eta guzti.



24. Mediku kontsultaren pareko aparkalekuak: Aurreko herri batzarrean galdetu zen honetaz eta argitzea nahi genuke: mediku kontsultaren parean erreserbatuta dauden bi plazak pazienteentzat dira seinaleak zehazten duen ordutegiaren barruan. Bestalde, plazako obra bukatzearekin batera, udaletxearen kontra plaza berri bat egokituko da medikuak edo erizainak aparkatu ahal izateko, larrialdi egoeraren bat suertatuz gero erabiltzeko.

25. Pixa botatzeko araudia: Herri batzarrean ateratako gaia dugu hau ere. Hainbat herritar kexatu izan dira baserritarrek pixa noiznahi eta nolannahi bota izan dutelako herrian. Berastegiko udal gobernuak ez du oraingoz ordenantzarik pixa noiz eta nola bota arautzen duenik, baina bada araudi orokor bat EAE osorako balio duena, zer, noiz, zer eguraldirekin eta zer distantziatara bota litekeen esaten duena. Inork kexarik edo salaketarik jarriko bala, guk araudi hori aplikatuko genuke.

26. Vodafoneren antena: Vodafone enpresa teleoperatzaileak antena libratu nahi du San Lorentzon eta udalaren eskumenean uzteko prest agertu da, baina baldintza batekin: beste teleoperadore bati ez uztea. Antena kentzeak lana eta kostua dakarkio enpresari, merkeago zaio bere horretan uztea eta guk, udal moduan, bila geniezaioke beste erabilera bat antenari.

Hitzarmen bat proposatu diogu enpresari: guk beste teleoperadore bati ez, baina wifi eta uhin seinaleak bermatuko dizkigun enpresa bati alokatzea antena. Izan ere, Tolosaldeko Komunikazio Taldeak eta 28 kanalak eskualde mailan uhin eta wifi seinaleak bermatzeko interes berezia azaldu dute antena honen gain eta wifi librearen alde lanean ari den Talaia enpresa kontratatatu dute horretarako. Udal gobernuak Vodafonerekin hitzarmena sinatuz gero, Talaiaren bidez bai wifi seinalea, bai irrati eta telebista seinaleentzako uhina ziurtatuko genituzke herrian.

Sinatzeaz daukagu hitzarmena Vodafonerekin. Etete klausula bat sartzea bakarrik falta zaigu, hitzarmena indarrean noiz arte egongo den zehaztuz.

KULTURA eta KIROLA



27. Basque Ultratrail zirkuitua: Hego Euskal Herriko 4 hiriburuetan barrena 4 etapatan neurtuko den mendi lasterketaren lehen edizioa ari dira egiten aurten (Bilbo-Gasteiz, Gasteiz-Iruñea, Iruñea-Donostia, Donostia-Bilbo). Hirugarren etapa, Iruñea eta Donostia lotuko dituen, abuztuaren 4tik 6ra bitartean jokatu da eta anoa gune edo jan, edan eta atseden hartzeko gune garrantzitsuena Berastegiko herriguneko izango da (120 kilometroko lasterketan 81. kilometroa).

Abuztuaren 5ean, larunbata, goizeko 9etatik iluntzeko 9 eta erdietara arte egongo da martxan anoa gunea, aparkaleku azpiko lokalean, eskola atarian eta frontoian zehar zabaldua. Udal azpiegiturak erabiltzeko baimena eskatu zion lasterketaren antolakuntzak udal gobernuari eta guk ez diogu ezezkorik eman. Festa aurrean ere festa izango dugu, beraz.

28. Harituz, Tolosaldeko bertsolaritza proiektua: Eskualdeko bertso eskolen eta bertsolari eta bertsozaleen sarea indartzera eta kohesionatzera datorren proiektua da. Udal gobernuak proiektua babestea erabaki du eta 1.000 euroko diru-laguntza emango dio. Herriko bertso eskolen eskaintza (800 euro inguru kostatzen zitzaiona udalari) barneratuta dago proiektu horretan.



29. J. A. Muñagorri eskolaren 25. urteurrena: Datorren azaroan 25 urte beteko ditu eskolak eta urteurrenaren harira hainbat ekintza antolatzekotan da udal gobernuak. Aurtengo Salontzoetako pregoia, esate baterako, eskola berriaren lehen pauso haietan eragile izan ziren udal ordezkari, irakasle, guraso eta ikasleek egingo dute; eta, bestalde, ikus-entzunezko emanaldi bat ere martxan dugu dagoeneko Kultur Astean eskaintzeko.



30. 2017ko Salontzoak: Ate joka ditugu eta egitaraua osatua dago. Aurten ohiko kirol, jolas, dantza, bertso, antzerki, musika eta jan-edanerako planez gain, berritasunen artean pailazoak, zirko tailerra, Haatik dantza konpaniaren *Errimak oinetan* ikuskizuna eta Luis Erasoren egur lanen, Jokin Txapartegiren tailla lanen eta Egoitz Inurritaren artelanen erakusketa izango ditugu.